7.3. Si dentro del plazo indicado, y salvo casos de fuerza mayor suficientemente justificados, no presentara dichos documentos, no podrá ser contratado/a, quedando anuladas todas sus actuaciones sin perjuicio de la responsabilidad en que pudiera haber incurrido por falsedad en su instancia.

7.4. En caso de producirse la renuncia expresa a la contratación de alguna de las personas propuestas se entenderá ampliada la propuesta de nombramiento a la siguiente

**OINARRIA.- GAINDITUEN ZERRENDA ETA EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA**

7.1.- Ariketaren kalifikazioa amaitu eta gero, gainditutuen zerrenda egingo du Epaimahaiak eta Udalaren webgunean jakinaraziko du, lortutako puntuazioaren araberako hurrenkeran, eta sozietateko lehendakariari igorriko dio zerrenda hori, espediente osoarekin eta puntu-kopuru handiena lortu duten pertsonen aldeko kontratazio-proposamenarekin batera

Amaierako puntuazio horretan berdinketa gertatzen bada, lehenbiziko proban, proba teorikoan, puntu gehien lortu dituen pertsonaren alde ebatziko da. Berdinketak jarraitzen badu, merezimenduen balorazioan puntu gehien dituen pertsonaren alde ebatziko da. Eta berdinketak jarraitzen badu, zozketa baten bidez erabakiko da.

7.2.- Kontratazioko proposatutako pertsonek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte.

a) Deialdiko bigarren oinarrian exijitutako tituluaren kopia edo hura lortzeko eskubideak bete izanarenfr

b) Deialdiko bigarren oinarrian ezarri diren gainerako betekizunak egiaztatzen dituzten dokumentuak.

Dokumentu guztiak jatorrizkoen edo kopia soilen bidez aurkeztuko dira.

7.3.- Adierazitako epearen barnean ez badira aurkezten agiri horiek, nahiko justifikatuta dauden ezinbesteko kasuetan izan ezik, ezin izango da kontratatu izangaia, eta bere jarduketa guztiak baliogabetuta geldituko dira, hargatik eragotzi gabe eskabidean faltsukeriaz aritzeagatik izan dezakeen erantzukizuna.

7.4.- Proposatutako pertsonetakoren batek kontratatzeari berariaz uko egiten badio, ulertuko da izendatze-proposamena zabalduko dela hurrengo puntu-kopuru handiena, ondoz ondokoa, duen pertsona hartzeko.

HERRI-KUDEAKETA
USALANDA
GESTIÓN PÚBLICA

**BASE 8. CONSTITUCIÓN DE LISTA DE CONTRATACIÓN.**

Con el resto de aspirantes se constituirá una lista de contratación del puesto convocado en función de la mayor puntuación obtenida en las pruebas.

La lista mantendrá su vigencia durante un periodo máximo de cinco años desde su aprobación. La gestión de la lista se regirá por los criterios de contratación de la lista de convocatoria de la empresa USALANDA GESTION PUBLICA,S.L.

**8. OINARRIA.- KONTRATAZIO-ZERRENDA ERATZEA.**

Gainerako izangaiekin iragarritako lanpostuaren kontratazio-zerrenda bat egingo da, probetan eskuratutako puntuazio handienaren arabera.

Zerrenda hori indarrean egongo da, gehienez ere, bost urtean, onartzen denetik aurrera. USALANDA HERRI KUDEAKETA, S.L. enpresaren deialdiko zerrenda kontratatzeko irizpideen arabera arautuko da zerrendaren kudeaketa.

**BASE 9. LLAMAMIENTO A LA CONTRATACION TEMPORAL.**

9. 1.- Normas generales de llamamiento

El llamamiento de las personas aspirantes para cubrir las necesidades de contratación de personal se realizará mediante llamamiento individual, de acuerdo con el orden de prelación en que figuren las personas candidatas en la correspondiente lista, teniendo en cuenta, en su caso, los perfiles correspondientes.

Con el fin de facilitar su localización, las personas aspirantes deberán comunicar, al menos, un teléfono de contacto, sin perjuicio de que puedan comunicar, además, otros teléfonos de contacto o dirección de correo electrónico, información que deberán mantener permanentemente actualizada.

Las llamadas o contactos por whatsapp para ofrecer el contrato se realizarán al número facilitado por la persona aspirante, siguiendo el orden de la lista. Se dejará constancia del resultado de la llamada (le interesa, no interesa, no contesta).

En todo caso, los llamamientos individuales se efectuarán de manera ágil, de forma que permitan cubrir la necesidad de contratación a la mayor brevedad posible.

**9. OINARRIA.- ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO DEI EGITEA.**

9.1.- Deiak egiteko arau orokorrak

Langileak kontratatzeko beharrak betetzeko, izangaiei banakako deiak egingo zaizkie, kasuan kasuko zerrendako izangaien hurrenkeraren arabera eta kontuan hartuta lanpostuaren eskakizunak.

Errazago aurkitu ahal izateko, izangaiek harremanetarako telefono bat jakinarazi beharko dute, gutxienez. Horrez gainera, harremanetarako beste telefono batzuk edo helbide elektroniko bat eman ditzakete. Informazio hori etengabe eguneratua eduki beharko dute.

Kontratua eskaintzeko deiak edo whatsapp bidez kontaktuan jartzeak izangaiek emandako zenbakietara egingo dira, zerrendako hurrenkerari jarraituta. Deiaren emaitza jasoko da, hauetako bat adierazita: “interesatzen zaio”, “ez zaio interesatzen”, “ez du erantzun”.

Nolanahi ere, banakako deiak arin egingo dira, kontratazio-beharra ahalik eta azkarren bete ahal izateko.

Las aspirantes no localizadas durante un período de seis meses pasarán a figurar como no disponibles en la lista.

Sei hilabeteko epean aurkitu ez diren izangaiak zerrendan eskuragarri ez bezala agertuko dira.

9.2- Excepciones al régimen general.

Cuando una aspirante haya desempeñado un puesto de trabajo en virtud de un contrato de sustitución y antes del transcurso de 20 días desde la finalización del contrato se produzca necesidad de cobertura temporal del mismo puesto de trabajo, se ofertará el contrato a la misma aspirante, siempre que, en el momento del nuevo llamamiento, concurran los siguientes requisitos:

- Que la aspirante esté incluida en una lista que se encuentre vigente en el momento del llamamiento. Que la finalización de su contrato no se haya producido por renuncia al mismo.

- Que la finalización de su contrato no se haya producido por alguno de los motivos que conlleva la exclusión de las listas.

Si en la primera comunicación no se logra contactar con la persona aspirante se le remitirá un mensaje informativo.

Cuando una aspirante no pueda ser localizada, se contactará con la siguiente o siguientes de la lista, hasta que el puesto o puestos de trabajo ofertados sean cubiertos.

9.2.- Araubide orokorraren salbuespenak

Izangai bat jada lanpostu batean ari bada ordezte-kontratu batekin, eta baldin kontratua bukatzen denetik 20 egun igaro baino lehen sortzen bada lanpostu bera aldi baterako betetzeko premia, kontratua izangai berari eskainiko zaio, baldin dei egiten zaion unean baldintza hauek betetzen badira:

- Dei egiten den unean indarrean dagoen zerrenda batean egotea izangaia.

- Aurreko kontratuaren bukaeraren arrazoia ez izatea hari uko egin izana.

- Aurreko kontratuaren bukaeraren arrazoia ez izatea zerrendatik ateratzeko horietako bat.

- Izangai bat aurkitu ezin denean ,zerrendako hurrengoarekin edo hurrengoarekin harremanetan jarriko da ,eskainitako lanpostua edo lanpostuak bete arte.

9.3.- Renuncias a oferta de contratación.

Si alguna persona aspirante renuncia al puesto de trabajo ofertado pasará a ocupar el último lugar de la lista respectiva, salvo que acredite encontrarse en alguno de los siguientes supuestos, en cuyo caso mantendrá su posición en la lista:

-Estar en situación de licencia por maternidad, paternidad, adopción o acogimiento.
-Encontrarse en situación de incapacidad temporal.
-Tener un contrato de trabajo en vigor.

- Tener a su cuidado un hijo o hija menor de 6 años. Quienes renuncien a un contrato por este motivo no podrán volver a estar en situación de disponibles hasta que haya transcurrido un mes desde la renuncia.

- Tener a su cuidado a un familiar hasta el segundo grado de consanguinidad o afinidad que, por razones de edad, accidente o enfermedad, no pueda valerse por sí mismo. Quienes renuncien a un contrato por este motivo no podrán volver a estar en situación de disponibles hasta que haya transcurrido al menos un mes desde la renuncia.

- Matrimonio propio o situación asimilada según la Ley 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables, si la fecha de inicio del contrato ofertado está incluida dentro de los quince días naturales anteriores o siguientes a su constitución.

En estos casos la persona aspirante pasará a figurar como no disponible en la lista de aspirantes a la contratación temporal, hasta que la propia aspirante solicite figurar como disponible por haber finalizado la circunstancia alegada. En el momento en que comunique su disponibilidad deberá acreditar documental y fehacientemente la concurrencia de la situación alegada en el momento en que le fue ofertado el contrato.

9.3.- Kontratatzeko eskaintzari uko egitea

Izangairen batek eskaini zaion lanpostuari uko egiten baldin badio, zerrenda horretako azken tokira pasatuko da, egoera hauetakoren batean dagoela frogatu ezean, kasu horretan duen postuari eutsiko baitio:

- Lizentzia izatea amatasun, aitatasun, adopzio edo harreragatik.
- Aldi baterako ezintasuna izatea.
- Lan-kontratu bat edukitzea indarrean.

- 6 urte baino gutxiagoko alaba edo semea zaindu beharrean egotea. Arrazoi horrengatik kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egongo, harik eta gutxienez hilabete igaro arte kontratuari uko egin zioten egunetik.

- Zaindu behar izatea bigarren mailara arteko odol edo ezkontza bidezko ahaide bat, berez baliatu ezin dena adina, istripua edo eritasuna dela-kausa. Arrazoi horrengatik kontratu bati uko egiten dioten izangaiak ez dira berriz deitzeko moduan egongo, harik eta gutxienez hilabete igaro arte kontratuari uko egin zioten egunetik.

- Izangaia ezkondu berria izatea edo uztailaren 3ko 6/2000 Legearen arabera pareko egoeran suertatzea (lege hori Bikote Egonkorrentzako Berdintasun Juridikorako da), baldin eskainitako kontratuaren hasiera eguna badago bikotea eratu ondoko edo eratu aurreko hamabost egun naturalen barnean.

Kasu horietan izangaia “ez deitzeko moduan” agertuko da aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrendan, harik eta izangaiak berak “deitzeko moduan” agertzea eskatzen duen arte, alegatutako inguruabarra desagertu delako. “Deitzeko moduan” dagoela adierazten duen unean agiri bidez eta modu sinesgarrian frogatu beharko du kontratua eskaini zitzaion unean alegatu zuen egoera.

9.4.- Descenso al último lugar en la lista:

Pasarán a ocupar el último lugar en la lista las personas aspirantes que incurran en alguno de los siguientes supuestos:

a) No suscripción del correspondiente contrato por causa imputable a la aspirante, una vez aceptado el puesto de trabajo en virtud del llamamiento.

b) Renuncia al contrato suscrito.

9.5.- Exclusión de las listas

Serán excluidas de la lista que haya dado lugar al llamamiento las personas aspirantes que incurran en alguno de los siguientes supuestos:

a) Haberle sido rescindido el contrato durante el periodo de prueba tras un informe motivado emitido por la dirección.

b) Abandono del puesto de trabajo sin causa justificada y sin haber establecido ningún tipo de comunicación con la dirección del centro.

c) Extinción del contrato por causas sobrevenidas, derivadas de la falta de capacidad o de adaptación de la persona contratada para el desempeño del puesto de trabajo, manifestada por un rendimiento insuficiente que impida realizar con eficacia las funciones atribuidas al puesto, como de una alteración en el contenido del mismo previa audiencia del interesado e informe de la Comisión de Personal o de los Delegados de Personal correspondientes”. Periódicamente se aprobará mediante Resolución de Alcaldía la relación de aspirantes excluidas por haber incurrido en alguno de los supuestos establecidos en el presente artículo. Dicha Resolución se publicará en la página web del Ayuntamiento de Berriozar.

d)

Berriozar a 30 de Abril de 2026.

9.4.- Zerrendako azken tokira joatea

Zerrendako azken tokira pasatuko dira kasu hauetakoren batean dauden izangaiak:

a) Dei egin eta lanpostua onartu ondotik, kontratua ez sinatzea, izangaiari egozten ahal zaion arrazoi batengatik.

b) Sinatutako kontratuari uko egitea.

9.5.- Zerrendetatik kanporatzea

Dei egin zaien zerrendatik izangaiak kanporatzeko arrazoiak hauek izango dira:

a) Kontratua probaldian deuseztatu izana zuzendaritzak txosten arrazoitua eman ondoren.

b) Lantokitik ateratzea bidezko arrazoirik izan gabe eta zuzendaritzari jakinarazi gabe.

c) Kontratua iraungitzea gerora sortutako arrazoiak direla-kausa, hain zuzen ere, kontratatutako langilea gauza ez izateagatik lanpostuko eginkizunak behar bezala betetzeko edo hartan egoki aritzeko, behar adinako errendimendurik eza nabarmentzen bada lanpostuko eginkizunak eraginkortasunez egiteko, edo lanpostuaren edukian gertatutako aldaketak direla-medio, betiere interesdunari entzutea eman ondoren eta Langileen Batzordeak edo langileen delegatuek beren txostena egin ondoren.

Aldian behin, Alkatetzaren ebazpen bidez, artikulu honetan ezarritako arrazoiengatik kanporatutako izangaien zerrenda onetsiko da. Ebazpen hori Berriozarko Udalaren webgunean kaleratuko da.

Berriozarren, 2026ko apirilaren 30an.

## ANEXO 1 · **1. ERANSKINA**

| D/Dª *jn./and.* | | Doc. Nº *Agiri zk.* |
|---|---|---|
| Domicilio. *Helbidea* | | C.P. *P.K.* |
| Localidad *Herria* | Nº Teléfono *Telefono zk.* | Correo electrónico *Posta elektronikoa* |

Ante VD .comparece y como mejor proceda dice:

Que, vista la convocatoria para la provisión del puesto de Peón de limpieza con destino a la empresa pública USALANDA GESTIÓN PÚBLICA, S.L.

**SOLICITA**

Sea admitido/a a la citada convocatoria, indicando:

Que no padece enfermedad ni defecto físico o psíquico que le incapacite para el ejercicio del cargo.

Que no está incurso/a en ninguna de las incapacidades establecidas en las disposiciones vigentes.

Que está en posesión de la titulación exigida en la convocatoria.

Que reúne todas y cada una de las condiciones exigidas, referidas a la fecha de expiración del plazo señalado para la presentación de instancias.

Que padece discapacidad, por lo que solicita la adaptación que se adjunta por los motivos que se expresan.(En folio aparte se especificarán los motivos de la discapacidad y las adaptaciones que se solicitan).

Que con el fin de acreditar el nivel de euskera tiene

Certificación oficial

Que cumple en tiempo y forma todos y cada uno de los requisitos exigidos en las bases de la presente convocatoria.

Zure aurrean agertu eta azaltzen dut:

USALANDA HERRI KUDEAKETA, S.L. enpresa publikoan aritzeko garbiketako peoi lanpostua betetzeko deialdia ikusirik,

**ESKATZEN DUT**

Aipatutako deialdian onartua izatea eta, horretarako, zera azaltzen dut:

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan gaixotasunik edo akats fisikorik edo psikikorik.

Ez dudala indarrean dauden xedapenetan ezarritako ezintasunik.

Deialdian eskatzen diren tituluen jabe naizela.

Eskabideak aurkezteko adierazitako epea amaitzeko egunari dagokionez, eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditudala.

Desgaitasunen bat dudala, eta ondorioz, eransten den egokitzapena egitea eskatzen dudala. (Beste dokumentu batean desgaitasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak zehaztuko dira).

Euskara maila egiaztatzeko ziurtagiri ofiziala aurkezten dudala.

Deialdian eskatutako baldintza guztiak betetzen ditudala, garaiz eta forman.

Berriozar,(fecha/*data*) _______________________________________________

(firma/*sinadura*)

**INFORMACIÓN BÁSICA DE PROTECCION DE DATOS.** Responsable del tratamiento de los datos personales aquí registrados: Usalanda, S.L.. Finalidad: selección de personal para la provisión depuestos de trabajo objeto de esta convocatoria. Derechos: acceso, rectificación, supresión.

**DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO ARGIBIDEAK**. Hartutako datu pertsonalen tratamendu-arduraduna: Usalanda, S.L.. Xedea: deialdi honen xede diren lanpostuak betetzeko langileak hautatzea. Eskubideak: sarbidea, zuzenketa, ezabatzea.

HERRI-KUDEAKETA
USALANDA
GESTIÓN PÚBLICA

**ANEXO 2**

**A) Experiencia laboral. (Máximo 30 puntos):**

Experiencia laboral en Peón/a de limpiezas de entidades públicas 4 puntos por cada año trabajado hasta un máximo de 30 puntos, para periodos inferiores se tendrá en cuenta la parte proporcional.

Experiencia laboral en Peón de limpiezas en entidades privadas: 3 puntos por cada año trabajado hasta un máximo de 30 puntos, para periodos inferiores se tendrá en cuenta la parte proporcional.

Experiencia laboral por haber prestado servicios en puestos en los que se haya realizado funciones de organización y coordinación de grupos de personas: 2 puntos por cada año trabajado hasta un máximo de 30 puntos, para periodos inferiores se tendrá en cuenta la parte proporcional.

Para la justificación de la experiencia laboral en el ámbito público o privado se aportará certificación expedida por el órgano competente de la correspondiente administración o empresa, en el que se especifique la categoría peón de limpieza que deberá ser en todo caso igual, similar o tener una analogía directa con el puesto, emitida por el organismo público de que se trate o empresa privada.

Los servicios prestados se acreditarán exclusivamente mediante certificados de la Administración Pública o de empresa, debidamente firmados y especificando claramente el periodo al que se refiere. **En ningún caso un documento de vida laboral de la Tesorería General tendrá valor.**

**2. ERANSKINA**

**A) Lan-esperientzia. (Gehienez ere, 30 puntu):**

Erakunde publikoetan garbiketako peoi lanpostuan aritu izanaren lan esperientzia: 4 puntu lan egindako urte bakoitzeko, gehienez ere 30 puntu lortu arte. Urte batetik beherako aldietarako zati proportzionala hartuko da kontuan.

Erakunde pribatuetan garbiketako peoi lanpostuan aritu izanaren lan esperientzia: 3 puntu lan egindako urte bakoitzeko, gehienez ere 30 puntu lortu arte. Urte batetik beherako aldietarako zati proportzionala hartuko da kontuan.

Antolaketa eta persona taldeak koordinatzeko eginkizunak egin izanaren lan-esperientzia. 2 puntu lan egindako urte bakoitzeko, gehienez ere 30 puntu lortu arte. Urte batetik beherako aldietarako zati proportzionala hartuko da kontuan.

Arlo publikoan edo pribatuan lan-esperientzia frogatzeko, dagokion administrazio edoenpresako organo eskudunak jaulkitako ziurtagiriaaurkeztuko da. Garbiketako peoiaren kategoria zehaztuko da bertan, eta kategoria hori, dena den, berdina izango da, antzekoa edo analogia zuzena izango du lanpostuarekin, delako erakunde publikoak edo enpresa pribatuak egina.

Emandako zerbitzuak Administrazio Publikoaren edo enpresaren ziurtagirien bidez egiaztatuko dira soil-soilik. Behar bezala sinatuta egongo dira eta aipatzen duten aldia argi eta garbi zehaztuko dute. **Diruzaintza Nagusiko lan-bizitzaren dokumentu batek ez du baliorik izango inolaz ere.**

**B) Cursos de formación. (Máximo 5 puntos):**

- Por haber realizado cursos de formación en el ámbito de limpieza mediante título o certificado:
  - Por cada 10 horas de formación certificada: 0,5 puntos.

- Por haber realizado cursos de formación en el ámbito de seguridad e higiene en el trabajo, prevención riesgos laborales, gestión de conflictos, gestión del tiempo, atención cliente, así como conocimientos básicos de informática mediante título o certificado:

  - Por cada 10 horas de formación certificada: 0,5 puntos.

Los certificados en el que no conste duración en horas lectivas no se valorarán.

**B) Prestakuntza-ikastaroak. (Gehienez 5 punto)**

- Garbiketaren arloko prestakuntza-ikastaroak egiteagatik, titulu edo ziurtagiri bidez:
  - Egiaztatutako prestakuntzako 10 orduko: 0,5 puntu.

- Laneko segurtasunaren eta higienearen arloan, laneko arriskuen prebentzioaren arloan, gatazken kudeaketan, denboraren kudeaketan, bezeroen arretan eta informatikako oinarrizko ezagutzetan prestakuntza-ikastaroak egiteagatik, titulu edo ziurtagiri bidez:

  - Egiaztatutako prestakuntzako 10 orduko: 0,5 puntu.

- Iraupena ikastorduen bidez jasotzen ez duten ziurtagiriak ez dira baloratuko.

**C) Conocimientos de euskera. (Máximo 5 puntos)**

- Por la posesión del Certificado o título emitido por organismos acreditados oficialmente de conocimiento de euskera de Nivel A1, según el marco de referencia europeo: 1,00puntos.
- Por la posesión del Certificado o título emitido por organismos acreditados oficialmente de conocimiento de euskera de Nivel A2, según el marco de referencia europeo: 2,00puntos.
- Por la posesión del Certificado o título emitido por organismos acreditados oficialmente de conocimiento de euskera de Nivel B1, según el marco de referencia europeo: 3,00puntos.
- Por la posesión del Certificado o título emitido por organismos acreditados oficialmente de conocimiento de euskera de Nivel B2, según el marco de referencia europeo: 4,00puntos.
- Por la posesión del Certificado o título emitido por organismos acreditados oficialmente de conocimiento de euskera de Nivel C1, según el marco de referencia europeo: 5,00puntos.

- En caso, de presentarse más de un título o certificado, el Tribunal sólo valorará el certificado o título aportado que acredite el nivel superior.
- A los efectos de establecer las convalidaciones entre los diferentes títulos y certificaciones que acreditan el conocimiento del euskera, se tendrá en cuenta la Resolución210/2010 del Director Gerente del Instituto Navarro de Administración Pública.
- El Tribunal podrá solicitar en cualquier momento aclaraciones y datos complementarios sobre los méritos alegados por las personas aspirantes.

**C) Euskara maila. (Gehienez ere, 5 puntu)**

- Europako Erreferentzia Esparruak finkatutako euskarazko A1 mailari dagokion ziurtagiria edo titulua izateagatik, ofizialki egiaztatutako erakundeek emandakoa: puntu 1,00.
- Europako Erreferentzia Esparruak finkatutako euskarazko A2 mailari dagokion ziurtagiria edo titulua izateagatik, ofizialki egiaztatutako erakundeek emandakoa: 2,00 puntu.
- Europako Erreferentzia Esparruak finkatutako euskarazko B1 mailari dagokion ziurtagiria edo titulua izateagatik, ofizialki egiaztatutako erakundeek emandakoa: 3,00 puntu.
- Europako Erreferentzia Esparruak finkatutako euskarazko B2 mailari dagokion ziurtagiria edo titulua izateagatik, ofizialki egiaztatutako erakundeek emandakoa: 4,00 puntu.
- Europako Erreferentzia Esparruak finkatutako euskarazko C1 mailari dagokion ziurtagiria edo titulua izateagatik, ofizialki egiaztatutako erakundeek emandakoa: 5,00 puntu.

- Titulu edo ziurtagiri bat baino gehiago aurkeztuz gero, goragoko maila egiaztatzen duen ziurtagiria edo titulua besterik ez du baloratuko Epaimahaiak.
- Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagiri desberdinen arteko baliozkotzeak ezartzeko helburuetarako, Administrazio Publikoko Nafarroako Institutuko zuzendari kudeatzailearen 210/2010 Ebazpena hartuko da kontuan.
- Epaimahaiak edozein unetan eskatu ahal izango ditu azalpenak eta datu osagarriak izangaiek alegatutako merezimenduen gainean.

HERRI-KUDEAKETA
USALANDA
GESTIÓN PÚBLICA

**TEMARIO**

Tema 1.– Organización y control del servicio de limpieza en centros públicos y administrativos. Conceptos generales de limpieza. Funciones del personal de limpieza.

Tema 2.– Productos de limpieza: tipos de productos,aplicación,composición y propiedades.Etiquetado,manipulación, trasvase y almacenamiento.

Tema 3.–Maquinaria de limpieza y utensilios.

Tema 4.– Limpieza de escaleras y suelos.

Tema 5.- Limpieza de urinarios, aseos y baños.

Tema 6.– Limpieza de mobiliario, ventanas, cristales,paredes y techos.

Tema 7.– Limpieza de áreas administrativas en edificios públicos.

Tema 8.-Prevención de riesgos laborales en el ámbito de limpiezas.

Tema 9.-Recogida,evaluación y reciclaje. Tipos de residuos. Identificación y tratamiento.

10.-Berriozar:geografía,organización municipal y competencias.Asociaciones y Organizaciones. Edificios públicos.

GAI-ZERRENDA

1. gaia– Garbiketa-zerbitzuaren antolaketa eta kontrola zentro publiko eta administratiboetan. Garbiketako kontzeptu orokorrak. Garbiketako langileen eginkizunak.

2. gaia– Garbiketa-produktuak: produktu-motak, aplikazioa, osaera eta propietateak. Etiketatzea, maneiatzea, ontziz aldatzea eta biltegiratzea.

3. gaia– Garbiketako makineria eta tresnak.

4. gaia– Eskailerak eta lurzoruak garbitzea.

5. gaia- Pixalekuak, komunak eta bainugelak garbitzea.

6. gaia– Altzariak, leihoak, kristalak, hormak eta sabaiak garbitzea.

7. gaia– Administrazio-guneen garbiketa eraikin publikoetan.

8. gaia– Laneko arriskuen prebentzioa, garbiketen esparruan.

9. gaia– Bilketa, ebaluazioa eta birziklapena. Hondakin-motak. Identifikazioa eta tratamendua.

10. gaia– Berriozar: geografia, udal-antolaketa et eskumenak. Elkarteak eta erakundeak. Eraikin publikoak.